

BELE GAZTE ZEGAMAKO UDAL

GAZTELEKUKO ZERBITZUAREN BARNE

ARAUDIA.

1. Araudi honen xedea da Bele Gazte Udal Gaztelekuaren erabilera eta funtzionamendu baldintzak arautzea. Gaztelekua Ugarte Zelai 12 bajuan dago eta Zegamako Udalarena da.

2. Gaztelekua nerabeei zerbitzua eskaintzen dien udal ekipamendua da. Zegamako nerabeei, gozamenaren bidez beraien behar eta interesei arreta eskaini eta herritar aktibo izateko eskubidea bermatu nahi die. Horrela, Zegamako Udalak, Gaztematikako Haur, Nerabe eta Gazteen Ekimenak eta Parte Hartzea Sustatzeko Zerbitzuan (PSZ) parte hartzen du. PSZ, balio hezitzaileak oinarriztat hartuz, nerabeak bizitzarako trebatzen dituen aisialdiko zerbitzua da. Hainbat balio sustatzen dituen zerbitzua da, hala nola, nerabeen garapen pertsonal eta soziala, ongizatea, aniztasuna, aukera berdintasuna, emozioen kudeaketa, ohitura osasungarriak, sormena, talde lana, erantzukizuna, elkarbizitza, euskara, etab.

3. Gaztelekua erabili ahal izango du 11-18 urte bitarteko zegamar orok.

4. Gaztelekuaren funtzionamendu egoki batetarako, hau irekita dagoen bitartean beti egongo dira bertan profesionalak-hezitzaileak.

5. Gaztelekua irekita egongo da ikasturtean zehar ostiraletan 17:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 16:30etatik 20:30etara. Opor garaietan (Aste Santuak, Uda eta Gabonak) ordutegi hau alda daiteke eta beharren arabera irekiko da.

6. Gaztelekuan antolatuko diren ekintza guztiak Udalak zehaztutako helburuetara bideratuta egingo dira. Gaztematikak jaso bezala, nerabeentzako zerbitzua, nerabezeroaz gozatzeko aukera eskaintzeko zerbitzua izateaz gain, nerabeak heldutasunera arrakastaz igarotzeko misioa izango duen zerbitzua da, autonomia, kritikotasuna eta arriskuen kudeaketa sustatuz.

7. Gaztelekuan egingo diren jarduerak bi motatakoak izango dira: Jarduera eta programa antolatuak alde batetik eta erabilera librea nerabeentzako, beti ere aurretik aipatutako ordutegien barruan.

8. Oro har, jarduera antolatuak doakoak izango dira. Dena dela, jarduera batzuk ordaindu beharrekoak izan daitezke.

9. Erabiltzaileen eskubideak: erabiltzaileek Zegamako Udalak eskaintzen duen gaztelekuko zerbitzua erabiltzeko eskubidea izango dute, zerbitzuaren araudiaren arabera.

10. Erabiltzaileek honako betebeharrak izango dituzte:

1. Instalazioa eta zerbitzua araudian jasotako arauen eta hura garatzen duten xedapenen arabera erabiltzeko betebeharra.

2. Instalazioak eta bertako ekipamendua zaintzeko betebeharra. Nahita egindako edo zabarkeriagatik gertatutako kalteen erantzule arduragabe jokatu duen pertsona izango da.

3. Beste erabiltzaileen eskubideak errespetatzeko betebeharra.

4. Zerbaitek oker funtzionatzen bada, zerbait puskatu bada edo araudi honetan esandakoa betetzen ez bada, Udaleko langileei horren berri emateko betebeharra.

5. Instalazioan behar bezala jokatzeko betebeharra.

6. Aforoa errespetatzeko betebeharra.

7. Indarrean dagoen legerian jasotako bestelako betebeharrak guztiak eta araudi honek ezarritakoak betetzeko.

11. Araudi honetan ezarritako arauak ez betetzeak gatazka egoera bat sortuko du. Gatazka horren kudeaketa egiteko lehenetsitako sistema izango da Udaleko Gazteria Arloak egoki ikusten duena.

12. Egoera gatazkatsua suertatzen bada, une jakin horretan instalazioan zeuden erabiltzaile guztiei sartzeko baimena kenduko zaie eta bilera baterako deia egingo zaie, gertatutakoa argitzeko eta norbere ardurak hartzeko, bai eta norberak sortutako kalteen gaineko ardura hartzeko. Aurrerantzean nola jokatuko den inguruko akordioak lortzea izango da helburu nagusia.